



## Euskararen erronka «erabilera» dela diote Artolak eta Iturraldek

**IZENDAPENA** ▶ Xabier Artola alkizarra eta Joxemari Iturralde tolosarra euskaltzain urgazle izendatu ditu Euskaltzaindiak

**GEROA** ▶ Azken urteetan lan handia egin dela badiote ere, «arriskuan» ikusten dute euskararen etorkizuna ▶ 4

L. TERRADILLOS



**INA URANGA** ▶ NEKAZARI EKOLOGIKOA

«Begiratu hutsarekin atzematen da produktua ekologikoa den ala ez»

Nekazaritza ekologikoa lantzen du Ina Uranga berrobitarrak ▶ 6

**TOLOSA** ▶

Tolosa CFko atleta kadeteak fin, Espainiakoan

Gilek, Artiedak eta Lopezek markak hobetu dituzte ▶ 2

**ALBIZTUR** ▶

Santa Marina auzoko jai handia, etzi

Meza, herri kirolak, eta bertsolariak egun osoan zehar ▶ 5

### Gure gomendioa



Atando  
Aitor Irujo



Tukichef  
Andrea Lulu Adore



El oro de Zola  
Philip Singh



Alta cocina de Ancha por casa  
Ancha



ekar

elkar ezagutzen dugulako

## ATLETISMOA ▶

# Gil, Artieda eta Lopez kadeteak «gustura» Espainiakoan

Hiru atletek euren markak hobetu dituzte txapelketan; Gil eta Artieda Espainiako selekzioarekin aritzera deitu dituzte



Lander Gil atleta, txapelketako proba batean, 100 metro hesiak korritzen. HITZA

## ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan kadete mailako Espainiako Atletismo Txapelketa jokatu zuten El Prat del Llobregaten (Bartzelona, Katalunia). Hara Espainiako atletarik aipagarrienak bildu ziren «dena emateko asmoz» eta Tolosak ere izan zuen ordezkapenik bertan. Tolosa CFko hiru gaztetxoekin. Lan-

der Gil —100 hesiak eta 100 metroak—, Xabier Artieda —300 metroak— eta Sandra Lopez —luzera jauzia—.

Taldeko arduradunak «pozik» azaldu dira, hirurek ere emaitza onak erdietsi baitzituzten Espainiakoan. Gilek, kadete mailako lehenengo urtekoa izanik, bere rankineko 1. postua baieztatu zuen eta «inolako arazorik gabe» 100 metro he-

sietan txapelketan sailkatzea lortu zuen. «Izugarrizko haize boladak izan zituen kontrari Gilek»; hala ere, bere markatik gertu geratzea lortu zuen. Ez zen eskuratutako marka bakarra; izan ere, 100 metroko proban ere brontzeko domina lortzea lortu zuen Espainiako korrikalari azkarrenen aurka. «Pena izan zen finalean irteera kaskarra izan zuela». Hala ere,

bere entrenatzaileak «oso gustura» daude egin duen lanarekin. «Datorren urtean garapen honekin jarraitzen badu karre- ra bikaina izango du hernaldearrak», baieztatu dute.

Xabier Artieda ere ez zen atzean geratu, eta «txapelketa borobila» egin zuen. Hala, 300 metroko lasterketan bigarren marka onenarekin iritsi zen. Finalean, berriz, «dehen postuan mantendu zen lasterketa erdira bitarte, baina azkeneko zuzengunean zegoen aurkako haizeak asko sufriarazi zuen eta, azkenik, laugarren postuan helmugaratzea lortu zuen, dominatik 8 ehunekotara». Kadeteen mailan azken urtea izan du Artiedak. Lortu zituen emaitzei esker datorren urtean Espainiako Txapelketan lehiatzeko txartela lortu zuen, jubenilen mailan.

Azkenik, taldeko gaztetxoekin, Sandra Lopez ibartarrak ere, «urte osoko lan bikainaren ondoren», txapelketarako sailkatzea lortu zuen luzera jauzian. Lehengo urtekoa izanik «emaitza ikaragarria» da berarentzat. 17. markarekin abiatu zen eta txapelketaren ostean, azkenean hobekuntza lortu zuen hirugarren jauzi on batekin eta 15. posturaino igo da. «Datorren urtean onenen artean egongo da, ziur».

## Espainiako selekzioarekin

Tolosa CF taldeko hiru kirolariek lortutako «emaitza bikain hauen ondoren», bai Gilek bai eta Artiedak ere «eskaintza berezia» jaso dute. Hain zuzen ere, Espainiako federaziotik deia jaso dute selekzioarekin konzentrazio batera joateko, «atleta onenen alboan». Lehenahesietako alorrekoekin entrenatzera joango da eta Artieda, aldi, lehen erreserba moduan, abiadurako sektorean ariko da.

## GIZARTEA ▶

## Harizpe elkarteak Laredora bidaia antolatu du

Harizpe jubilatuen eta pentsiadunen elkarteak Laredora (Espainia) bidaia antolatu du datorren abuztuaren 25erako. Txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko, elkartean bertan, datorren hilaren 23a bitarte. Bazkideek 29 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, aldi, 32 euro.

## KIROLA ▶

## Oargi elkartearen irteera, Picos de Europa

Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du, bihartik hilaren 25era, Picos de Europa (Espainia). Bertara joateko interesa duenak 673 83 03 80 telefono zenbakira deitu beharko du. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, 21 urte aipikoek ehuneko 20ko beharpena izango dute.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

## Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

## MUSIKA ▶

## Mariachi Perla, bihar, Alde Zaharreko kaleetan

Ezpeleta Ostalaritza elkarteak eta Udalak antolatu dute, «herriari bizia emateko»

## ERREDAKZIOA

Tolosako kaleak eta, batik bat, «tolosak guztiak» animatzeko helburuz, Ezpeleta Alde Zaharreko Ostalaritza elkarteak eta Tolosako Udalak elkarlanean,

emanaldi berezia antolatu dute. Hala, gauerdian hasi eta ordu eta erdiz Mariachi Perla taldeak kaleak alaituko ditu. Ezpeletako Mikel Zubiriak azaldu duenez, «jendea larunbatean Tolosatik kanpora joaten



Tolosako kaleak alaituko ditu Mariachi Perla taldeak. HITZA

da, eta hori ekiditeko zerbait egin behar zela pentsatu genuen». Bada, tolosarrek ez dute aitzakiarik oraingoan Tolosan ez geratzeko.

Hamar kidek osatzen dute taldea eta doinu mexikarrak izango dituzte nagusiki. «Adin guztientzat zuzendutako emaldia izango da».

**KIROLA ▶**


Tolosa Kup Txapelketan, Ibarra eta Tolosaren artean, joan den urtean jokatu zen partida. INIGO TERRADILLOS

# Irailera arte luzatu dute Tolosa Kup-en izena emateko epea

Orain arte 35 taldek eman dute izena, baina oraindik, «dezente gehiagok» emango dutela uste du Gazteria Sailak

**ESTI EZEIZA**

Irailaren 23an abiatuko da aurten Tolosa Kup Txapelketa. Hala, eskualdeko gazteek eta Tolosako Gazteria Sailak antolatuta, hiru hilabetez-edo luzatu da txapelketa.

«Oraingoz 35 taldek besterik ez dute eman izena», baina oraindik ere, gehiago amaitzeko direla espero du Tolosako Gazteria Sailak. Hori dela eta, hasiera batean, izen emateko epea datorren astean amaitzen bazen ere, irailko lehenengo astera arte luzatzea erabaki dute antolatzaileek. Izan ere, Nerea Cereceda Garteria saileko arduradunaren esanetan, «opor garaian gaudela eta, nik uste dut jendea oraindik ez dela gehiegi enteratu; joan den urteko txapelketan 45 taldek hartu zuten parte, eta aurten, beste horrenbeste izango direla uste dugu».

Aipatu bezala, izena emateko epea irailaren lehenengo astera arte luzatu dute. Alabaina, interesatuek, gazteria@tolosakoudala.net helbidera idatzi edo 943 67 03 83 telefonora deitu beharko dute. Parte hartzeko, talde bakoitzak 75 euro ordaindu beharko ditu. Hala

**TOLOSA KUP ▶**
**IZEN-EMATEA**

**Epea.** Irailko lehenengo astera arte

**Non.** gazteria@tolosakoudala web orrialdean, edo 943 67 03 83 telefonora deituta.

**Prezioa.** 75 euro.

**Adina.** 16 urtetik gora.

talde kopurua zehaztu ondoren, irailaren 6an partiden egutegia finkatzen hasiko dira, eta 8an, zozketa egingo dute. Aurriuspenen arabera, irailaren 23an hasiko da txapelketa, eta eguberri edo inauteriak arte luza daiteke. Txapelketan, ligaxka sistema erabiliko dute, beraz, guztiek guztien aurka jokatu dute. Partidak larunbat eta igande arratsaldeetan izango dira.

Joan den urtera arte koadrila bat arduratzen zen antolakuntza, eta Udalak ematen zuen laguntza ekonomikoa besterik ez zen. Baina, oraingoa, «lagun talde batentzat bakarrik lan handiegia suposatzen zuten», antolakuntza lana komisioka burutzea erabaki dute. Hau da, Tolosa Kup-en parte hartu nahi duten taldeek beren

e-maila ematen diote Gazteria Saileko arduradunari, eta honek, bilerak-eta noiz diren ohartarazten die. Horrela, noiz-behinka, bilerak egiten dituzte, taldeetako ordezkarien eta Gazteria Sailekoen artean. «Kontuan hartu beharra dago, 35 talde direla, eta hauetako bakoitzean 10 lagun inguru daudela; horregatik, suposatzen duen lana izugarria da». Honela, funtzionamentu berri honekin, orain arte, sei edo zazpi bilera egin dituzte, eta Cerecedaren esanetan, «nabaria da jendeak interesa duela, bileretan-eta parte-hartzea handia baita, eta gazteek lanerako gogo handia dute».

Bestalde, Gazteria Sailak luzatutako datuen arabera, «orain arte izena eman duten talde guztiak Tolosa eta Ibarra-koak dira». Gehienak mutilak dira, nahiz eta talde batzuk mistoak diren. Hala, antolatzaileek neskak animatu nahi dituzte. Honekin batera, jakinarazi, irailaren 15an, «pixka bat girotzeko», Berri Txarrak musika talde nafarrak kontzertua eskainiko duela Plaza Berrian. Honez gain, txapelketa amaitzean, jaialdi berezi bat egingo dute parte-hartzaileek.

**KULTURA ▶**

## Graffiti Lehiaketako finala Tolosan izango da

Euskal Herriko hirugarrena izango da, eta abuztuan amaitzen da izen-ematea



Gazte batzuk graffiti bat egiten, aurkezpen egunean. HITZA

**E. EZEIZA**

Martxan da dagoeneko Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketa. Norgehiagoka honen helburua gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa sustatzea da, eta aldi berean, izaera sortzaile hau eta ekoizpen artistiko horiek gizarteratzea.

Parte-hartzaileek, abuztuaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte zirriborroak. Bestalde, gutunazal batean, lanaren inguruko datuak bidali beharko dituzte, honako helbide honetara: Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa. Arlozabal 8 bis, 1C. 48220 Abadiño (Bizkaia). Gutunazalean Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketarako doala adierazi beharko dute. Eta behin lan guztiak jaso ondoren, epaimahaiak hormen esleipena egingo du. Hauek aurkeztutako zirriborro guztien artetik hamar aukeratuko dituzte finalerako. Lehiaketa irailaren 6an izango da Tolosan, sari banaketa ere bertan egingo delarik.

Lehiaketa honetan hiru sari mota banatuko dira, denek ere 1.200 euro eramango dituztelarik. Alde batetik, tekni-

**IZEN-EMATEA ▶**

Parte-hartzaileek gutunazal batean, ondoko datuak eman beharko ditu:

- ▶ Obraren izena.
- ▶ Behar dituzten koloreen erreferentzia eta kopurua.
- ▶ Egilearen izen-abizenak.
- ▶ Nortasun agiriaren fotokopia.
- ▶ Helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.
- ▶ Taldeen kasuan, taldeko kide bakoitzaren datuak: izen-abizenak, fotokopia, helbide, telefono eta posta elektronikoa.

karen erabilera egokiena erabiltzen duenarentzat saria egingo da; baita, koloreen erabilpen onena egiten duenarentzat. Eta azkenik, graffiti original eta freskoena egiten duenarentzat.

Txapelketa honetan 15 urtetik gorako edonork har dezake parte. Eta erabilitako gaia eta teknika libreak izango dira. Bestetik, lanak originala izan beharko du, hau da, norberak sortua.

**iragarki laburrak ▶**
**SALGAI**

**Txakurkumeak.** Txakurkumeak salgai. Euskal artzai arrazakoak. Prezio oso onean. Oso politak. 636 17 16 24.

**Autoa.** Opel Astra 1.7 TDa salgai. 11 urtekoa. 1.800 euro. Deitu 607474826 zenbakira.

**LANA**

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko. Tolosaldean. Eskarmentatua.

**Interesatuek deitu**

635 74 52 91 telefono zenbakira.

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria

behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako.

**Interesatuek deitu**

677 32 99 34 telefono zenbakira.

**BESTELAKOAK**

**Txakurkumeak.** Artzai txakurkumeak oparitzen ditut. Hilabete batekoak. Arrak eta emeak. Deitu 948 50 44 81 zenbakira.

ALBIZTUR ▶ JAIK

# Santa Marina auzoko jaian, herri kirol proba erakargarriak

Igandean izango dute egun berezia, meza nagusia ospatu eta arratsaldean kirolari eta musikari egingo diote lekua



Aurten ere, herri kirolak izango dira. Irudian, Arandia anaiak trontzan. MAIDER JAUREGI

**NEREA URBIZU**

Santa Marinako jaia egingo dute etzi, Albizturko Santa Marina auzoan. Santa Marina Eguneko ondorengo igandean egin ohi da, eta kasu honetan, hilaren 23an egokitu da.

Giroa alaitzeko Albizturko udalak prestatu du egitaraua. Aurreko urteetan bezala, herri kirolak eta bertsolariak izango dira, besteen artean. Jende asko biltzen ohi da egun honetan Santa Marinaran, eta «hala espero dute» aurten ere.

Eguna hasteko Joxe Inazio Eguzkitzak ospatuko du meza, bertako ermitan, 12:30ean. Jende asko bertan geratuko da bazkaltzen, Segoretxe landa etxean, baina hori aukerazkoa izango da, ez baitu udalak prestatu.

**Arratsaldeko ekintzak**

18:00etan hasiko dira herri kirolak. Aizkolariak, korrikalariak eta Aimar Irigoien errezil-darra eta Miren Urkiola harri-jasotzailea ere izango dira.

Beste urteetan bezala, Segoretxe lande etxearen pareko

**EGITARAUA ▶**

Hau izango da igandean zehar egingo dituztenak:

**IGANDEA**

**12:30.** Meza Nagusia Santa Marina beselizan.

**18:00.** Herri kirolak: aizkolariak, harri-jasotzaileak, sokatira, kixkilariak eta korrikalariak.

**Ondoren.** Bertsolariak: Millan Telleria eta Aitor Mendiluze.

**Egun osoan zehar.** Arandia anaiak trikitixa eta panderoarekin.

belazean egingo dituzte proba guztiak.

Herri-kirolen baitan, aurreko urteetan aritzen diren kixkilarien proba ere egingo dute. Aipatu proba hau ez da hain ezaguna. Gipuzkoan eta Bizkaian da arruntagoa, sagarrekin eta sagardoarekin baitago lotuta: kixkilariak, sagar txikiak puntzoiarekin jasotzen zituztenak ziren: esku batean puntzoia eta bestean saskia, denak biltzen zituzten. Santa Marinaran, beraz, kixkilariak izango dira, baina

sagarrik biltzen azkarrena izango da irabazlea, ez gehien jasotzen dituenak.

Trontzalariak ere izango dira, eta denak herrikoak izango dira. Beraz, «emozioa areagotu egiten da honela». Halaber, herri kirolak partaideek, harri-jasotzaileek barne, sokatira egingo dute, festaren tarteren batean.

Ondoren, behin herri-kirolen saioa bukatuta, bertsolariak ere izango zaie lekua. Aurten, Millan Telleria albizturtarrak eta Aitor Mendiluzek egingo dituzte bertsoak.

Egun osoan zehar Albizturko Arandia anaiak, trikitixa eta panderoa gainean hartuta, jotzen ariko dira eguna alaitzeko asmoz. Baten batek dantzatu nahiko balu, musikarekin animatzeko aukera izango da, hortaz. Bukatzeko, antolatzaileak eta lanean aritu direnak Santa Marinaran bertan geratuko dira afaltzen, afaria jatetxeak berak eskainiko duelarik.

Bada, egunpasa bete-betea igarotzeko aitzakia: musika, bertsolariak, trikitilariak eta herri kirolak, paraje berde eta ederretan.

**AMEZKETA ▶**

## Joxean Tolosa Txapelketan izango diren partidak

Nagusietako lau partida jokatuko dituzte; larunbat arratsaldean beste bi

**N. URBIZU**

Gaur hasiko dituzte asteburuko XVII. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako lehenengo partidak. Hirugarren astea izango da honakoa.

21:00etan, lehenengoak Bolinaga eta Zelaieta izango dira. Gazteen mailan, Mitxeleena eta Albarado. Nagusien artekoan, berriz, Elizalde eta Elurbe ariko dira.

Biharkoan, 17:00etan, Nagusien bi partida ikusi ahal izango dira. Lehenik, Beloki eta Aranburu ariko dira, eta bigarren partidari, aldiz, Mendiluze eta Agirre.

Gauean, 22:00etan, Albisu eta Agiriano kadeteak ariko dira nor baino nor. Jarraian, gazteen partida izango da, Galarraga eta Nuñezekin; ondoren, Senior Mailako Landriabar eta Gereta izango dira.

**AIZTONDO ▶**

## Jubilatuek kostaldea bisitatzeko bidaia

**N. URBIZU**

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak jubilatuentzako bidaia antolatu du. Hil honen 27an egingo dute, datorren ostegunean.

Getaria eta Zarautz ikusiko dituzte, goizean lehena, txakolindegira bisita eginez eta bertan hamaiketako eginez. Aldi berean, txakolina dastatzeko aukera ere izango dute.

Bazkaltzera Zarautzera joango dira eta arratsaldea libre izango dute. Dena 28 euroren truke izango da, baina izena emateko azken eguna gaur izango da, eta telefonoz egin behar da, 943 69 39 30 zenbakian.

Larrauldik 08:30ean abiatuko da autobusa; Alkizatik 08:45ean; Usurbil Goian 09:00etan; eta Adunatik 09:15ean.

badugu GILTZA,  
badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekua.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAREN egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAREN egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

INA URANGA ▶ NEKAZARI EKOLOGIKOA

# «Lehen begiradan nabaritzen da produktua ekologikoa den»

Nekazaritza ekologikoa lantzen du berrobitarrak; lan handiagoa duela, baina kalitatea eskaintzen duela dio

INIGO TERRADILLOS

Duela 12 urte inguru bizimodu aldatu eta nekazaritza ekologikoa lantzea erabaki zuen Ina Urangak (Berrobi, 1965). Era naturalean lan egitea oinarri duen nekazaritzaz aritu da Tolosaldeko eta Leitzaldeko hitzarekin solasean.

## Nolatan murgildu zinen nekazaritza ekologikoan?

Aita hil zenean, amak hartu zuen baratzen ardura. Nik lagundu egiten nion eta pixkanaka hainbat gauzetaz konturatzeko joan nintzen. Esaterako, behin amak baratzean botikak botatzen hasteko esan zidan. Produktu horiek aztertu nituen, eta ez zirela batere onak izango pentsatu nuen. Amari esan nion hori, eta berak beti erabili izan dituztenak zirela erantzun zidan. Moztu egin nuen botikak erabiltzeko ohitura, eta ordutik aurrera, nik hartu nuen baratzen ardura, eta nekazaritza ekologikoa ezagutzeari ekin nion.

Zer egin zenuen horretarako?

Fraisoro nekazaritza eskolan hasi nintzen ikastaroak ematen. 12 urtez egon naiz. Alemanian eta Italian ere izan naiz ikasten. Ikasitako guztiarekin, orain konturatzen naiz zer botatzen genuen lehen baratzean, eta zer kalite egiten genuen.

## Ikasitakoa praktikan jartzea nola izan zen?

Lehendabiziko aldia, martxa hartu arte, nahiko zaila izan zen. Tomatea nahiz patata, guztia kiskali zitzaidan. Ekologiko kontuan prebenitzea da garrantzitsua, hau da, gaitza sartu baino lehen lan egitea, eta horretarako, teknikak ondo ikasi gabe badituzu oso zaila da.

## Zeintzuk dira teknika horiek?

Guk ezin ditugu pestizidak eta herbizidak bezalako produktu kimikoak erabili. Horien ordez, osin ura, azeri buztana, belar aromatikoak, zaztrakak... erabiltzen ditugu teknika natural moduan.

## Erraz nabaritzen al da produktu kimikoekin edo era na-



I. TERRADILLOS

## turalean landuriko produktua den?

Baratzetan begiratu hutsarekin segituan atzematzen dut norik botatzen dituen produktu kimikoak eta norik ez. Egia esan, produktuen artean alde gehiegirik ez dago diruari dagokionez, baina kalitatean dagoen aldea nabaria da, botatzen duten usainean eta zapoan bereziki; berde-berdeak eta itxura ederrekoak izan ohi dira produktu kimikoekin hazitakoak, ekologikoez, aldiz, itxura kaxkarrogoa izan dezakete

zomorroengatik-eta, baina hori da naturala.

## Zergatik jotzen dugu orduan kimikara?

Errazagoa delako. Nekazaritza ekologikoa egiteak lan handia eskatzen du, eta denbora izan behar da.

## Nolakoa izan da aurtengo uzta?

Ikaragarri txarra, izan ere, patata eta tomatea erabat kaltetu dizkit. Era naturalean eginiko produktuekin saiatu nintzen izurriteak ekiditen, baina produktuek ez zioten eutsi, eta


denbora baino lehenago atera beharra izan nituen. Eguraldia ere ez da batere egokia izan, laino artean egon baikara.

## Garai hauetan zer da jateko egokiena?

Tomatea da egokiena, baina horrekin batera, letxua, kalabaza eta kalabazina garai oparoenean daude. Kalabaza, esaterako, nahiko produktu berria da. Tolosan denda ireki dugunetik hasi gara konturatzen zer eskatzen duen jendeak, horretatik ari gara produktu berriak sartzen.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inketa.** «Zer aukeratzeko duzue ostatu hartzeko oportetara zoazenean?»  
Hauek dira gure webgunean gai honen inguruan jaso ditugun emaitzak:



## TOLOSA ▶ KULTURA



## Koldobika Jauregiren lanak ikusgai

**Erredakzioa** ▶ Tolosako 750. urteurrena dela-eta Koldobika Jauregi eskultore alkizarrak erakusketa berezia antolatatu du. Neurri, espazio zein mamiarengatik desberdintzen da 12-14 eskulturez osaturiko erakusketa. Atzo goizean jarri zituzten 4 eta 16 tona bitarteko marmolez eginiko lanak herriko kaleetan. Euskal Herriko gaiekin lotuta daude, eta iraila bitarte izango dira ikusgai. Iru-dian, San Frantzisko kalean ikus daitezkeen lanak. I. T.

ARESO ▶ KIROLA

# 600ekoan domina eta 560koan txapelaren bila doaz Aresokoak

Bihar jokatu dute Azpeitian 600eko hirugarren eta azken jardunaldia eta asteartean, berriz, 560ko bigarrena



lazko Aresoko saioan, bertako taldea lanean. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Asteburu luzea bezain gogorra eta erabakiorra heldu zaio Aresoko sokatira taldeari. Euskal Herriko Lurgaineko Sokatira Txapelketak bukatzeko hiru saio ditu jokatzekoak; hauetatik bi, bat bihar eta asteartean bestea; bata 600 kiloko txapela erabakiko duena eta 560koan azken saiorako bidea irekiko duena, bestea.

Hala, bihar bertan, Azpeitian dute hitzordua egina, 600 kilotan parte hartzen ari diren zazpi sokatira taldeek, Loiola hotelaren ondoko larrean, 17:00etatik aurrera lehiari ekitako. Ordurako, 14:00etatik 15:30era, taldeek pisaketa saioa eginga izan den. Pisu horretan, hirugarren eta azken jardunaldia izanen dute bihar. Aurreko bi saioetan garaipea eskuratuta, 14 punturen jabe da Goiherri A talde bizkaitarra eta txapela nahiko ziurtatuta du. Hurrengo, 11 punturekin, Nuarbe da eta honek ga-

raipena kentzeko, erandioarrek gutxienez laugarrenetik behera egin beharko lukete. Gauzak bere horretan joanez, ez da ausarki hitz egitea, hori gertatzea zaila dela esatea.

Edozein moduz, Nuarbek etxean jokatu du bihar eta «hauek lur gogorrean oso onak dira», baieztatu dute Aresoko taldeko kideek, azpeitiarrak «bigarren postua ziurtatza» joanen direla uste duten arren, Gaztedi A taldea, hori baitute puntu bakarrera orpo orpo jarraian. Eta hauen ondoren dago Aresokoa, Laukizko taldeari lekua kentzeko gogoz zelairatuko dena. «Gaztedi bererantz heldu dela iduritzen zaigu eta horretaz baliatuz, ea 3. postua lor dezakegun», zioten. Izan ere, taldeen artean «oso alde gutxi dago, eta puntuek ere batean batentzat eta bestean bestearentzat izaten dira».

Horren adibide izan zen, hain zuzen ere, aurreko jardunaldian gertatu zena. Izan ere,

## SAILKAPENA ▶

### SOKATIRA TXAPELKETA

600 Kilo.

Taldea	I	II	Guz.
1. Goiherri A	7	7	14
2. Nuarbe	5	6	11
3. Gaztedi A	6	4	10
4. Areso	3	5	8
5. Mutriku	4	3	7
6. Goiherri B	1,5	2	3,5
7. Gaztedi B	1,5	1	2,5

560 Kilo.

Taldea	I. saioa
1. Goiherri A	5 puntu
2. Gaztedi A	4 puntu
3. Areso	3 puntu
4. Gaztedi B	1,5 puntu
5. Goiherri B	1,5 puntu

Aresoko taldeak hirugarren egin zuen, Goiherriekin berdina eta Nuarberekin galduta, gainerakoekin irabazi ondoren. «Oso gogorra» baina «oso egun ona» osatu zutela zioten orduan. Bihar, ziotenez «lata piska bat eman» eta orokorrean 3. lekuarengatik borroka egitera doazela adierazi dute.

Ez dute, ordea, lasaitzeko batarik izanen. Egundun bateko atsedeneren ondoren, 560 kilotako lehiari, bigarren jardunaldia jokatu baitute Barrikan, asteartean. 11:00etan, tabernak dauden inguruan nonbait, elkartuko dira bost taldeak; Aresorekin batera, lau Bizkaikoak. «Larunbatekoa errekuperatu eta saioa irabaztera joanen gara. Taldea gora doa eta esperantzak baditugu pisu honetan». Areson txapela etxerako izatea nahi dute.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

## Haur eskolako hezitzaile berriak hautatu dituzte

Hurrengo bi ikasturteetarako ordezkapenak egiteko zerrenda ere osatuta gelditu da

ERREDAKZIOA

Hurrengo ikasturtean hasi eta bi urtetarako, hezitzaile berriak izanen dituzte haur eskolan. Gaur egun, laguntzaile modura lanean ari ziren bi ki-deen orde sartuko dira berriak; egiazki bakarra aldatuko da, lehengo batek hor jarraitzeko bidea izanen baitu, frogetan lortutako emaitzen ariora. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan Estitxu Kabalero (berria) eta Maria Jesus Sukuntza izanen dira hezitzaileak, beste bi titularez gain (horiek bere horretan jarraituko dute).

Aste honetan zehar egin dituzte haur eskolako hezi-

tzaileak kontratatzeko hauta-frogak. Zazpi lagunek parte hartu dute eta bostek gaituzte dituzte frogak. Horrela, lagun horiekin, lortutako puntuaketa handienaz aurrera, ordena mantenduz, haur eskolako hezitzaileak kontratatzeko zerrenda osatuta gelditu da. Udalak argitaratu duen zerrendaren ariora.

Ordezkapenetarako ere

Aurreneko biek, ikasturte hasieratik ekinen diote lanari; gainerakoek, ordezkapenak egiteko zerrenda osatuko dute. Beti ere, haur eskolan matrikulatutako ume kopuruak hala eskatuko balu.

LEITZA ▶ KIROLA

## Plazako banakakoan final-laurdenetan dira

Bihar jokatu dituzte pilota partidak; iazko finalerdietako pilotariak sartuko dituzte

ERREDAKZIOA

Bihar, Plazako Banakako Pilotaren Txapelketako azken final-laurdenetako partidak jokatu dituzte, lehen kanporaketa jardunaldia jokatu dago eta. Saikatuak, iazko finalerdiko pilotariak izanen dituzte aurkari, buruz buru.

Lehen larunbat arratsaldean jokatu zuten txapelketako lehen kanporaketa saioa: Gartzia 22 eta 8 irabazi zion Zubillagari; Telletxea, 13 eta 20 galtzen joanda partidari

buelta eman eta 22-20, aldeko emaitza lortu zuen Lazkanoren aurka; Mariñelarenaren orde jokatu zuen Oihan Alduntzinek, berriz, Buldaini 22 eta 20ko emaitzarekin irabazi zion; eta azkenik, erakustaldi bikaina eginez, Iriarte 22-5 gailendu zitzaion Abuzari.

Hau da biharreko saioa: kartelera, 17:30ean hasita: Gartzia-Olano (hauek goizez jokatu dute); Telletxea-Bengoe-txea; O. Alduntzin-I. Alduntzin; eta Iriarte-Aldaia. Irabaztunak finalerdietara doaz.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK** Telf.: 943 65 56 95  
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberria ▶

### Joxe Manuel Balentziaga



Eman duzun adina maitasun jaso duzu (berridatzi) ..... beste.....  
Guk inoizko ikaslerik saiatu eta temosenari ohorezko EGA titulua ematen diogu  
Zure idazlanak zuzentzen nahiko penitentzia izan dugun Urrats Euskaltegiko irakasleok

DONOSTIA, 2006eko uztailaren 21a

**AGENDA** ▶

**ANTZERKIA**

**Gaztelu.** Ni arratoi txotxongilo emanaldia. 18:00etan, elkartearen.

**DEIALDIK**

**Aitzo.** Zikiri jatea egingo dute hilaren 28an, frontoian. Txartelak salgai Arandia jatebtean, 18 eurotan.

**Bidegoian.** Suak kaltetutako Eztiola baserrikoei laguntzeko jaialdia antolatu dute hilaren 29an: herri kirolak, bertsolariak, afaria... Afarira joateko txartelak salgai egongo dira gaur arte.

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara.

**Tolosa.** Andorrara irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari, 5. 943 65 27 89).

**Tolosa.** Oargi elkarteak Picos de Europa mendi irteera antolatu du hilaren 22tik 25era. Interesatuek 637 83 03 80ra deitu.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan.

**Hernalde.** Gregorio Lopezen lanak, Ostatuan.

**Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.

**Tolosa.** Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo tolosarren margolanak, Errotan.

**Zizurkil.** Eskultura erakusketa, Olentzon.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
 Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

**IRRATIA**

**Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.  
 21:00-22:00. Gora Euscadi Txistulari.  
 22:00-23:00. Gau bero.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Etxeko txirrindularien berri

**ANOETA** ▶ Joseba Agirrezabala txirrindulariaren ibilbidea «hemen eta kanpoan ezagutzera emateko» [www.itxaspe.com/JosebaAgirrezabala](http://www.itxaspe.com/JosebaAgirrezabala) webgunea sortu dute

The screenshot shows the website 'segurclub.com' with a blog post titled 'Pagina web de Joseba Agirrezabala'. The text in Spanish describes the website as a resource for Joseba Agirrezabala, a cyclist from Tolosa, who is part of the Grupo Nicolas Mateos. It mentions that the website is in the process of being updated and includes a forum for news and information. There are also links to a blog and a direct link to the Tour de France.

Atal asko ditu Joseba Agirrezabalaren web orriak; tartean, bere argazkiak (goiko irudian agertzen da). HITZA

**ERREDAKZIOA**

**F**rantziako Tourrak txirrindularizaleak eta hain zale ez direnak ere erakartzen ditu kirol horretara uztailean. Baina punta-puntan ibiltzen diren horietaz gain, badago beste txirrindulari asko, talde xumeagoetan korritzen, baina urte osoan, besteak bezala, lan handia egiten dutenak. Horien artean dago Joseba Agirrezabala anoetarra.

Bada, egun Murtziako (Espainia) Grupo Nicolas Mateo taldean aritzen den txirrindulari honen ibilbidea «Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ezagutzera emateko», webgune bat sortu dute: [www.itxaspe.com/JosebaAgirrezabala](http://www.itxaspe.com/JosebaAgirrezabala). Atal asko gaztelaniaz daude, «kanpoan ere uler dezaten nahi dugulako», baina euskaraz «gero eta informazio osatuagoa» biltzeko asmoa dute. Besteak beste, ibilbidea, palmaresa, argazkiak, albisteak, foroa, Tourrari buruzkoak eta beste webguneei loturak jasotzen ditu.

**AGURRAK** ▶



**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5. behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**URTE ASKOAN**  
 Eñaut Galarraga Cenzano (Amasa-Villabona).  
 Gaur 5 urte. Urte askoan eta hiru muu handi Olatz, Andoni eta Amaiauren partetik.

**EUSKAL JAIA**  
**BILLABONA 2006**

Uztailak **29** Larunbata

18:00etan Sagardo dantxaketa jaioterriaren  
 19:00etan ERROMERIA  
 Antziazaren Antziaz & Juan Mari Beltran  
 21:00etan Atari herrikola plazaan: **Zikino Jaiak**  
 22:00etan ERROMERIA, Tapia eta Leturia

Garalko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaibuztegu  
 Zikiri jaioterriko txartelak salgai ondoko lekuetan / 20€